

ENTREGA DE LLAVES DE SGAE EN PAMPLONA - 16 DE JUNIO DE 2025

MARÍA LUISA OZAITA MARQUÉS
(1939-2016)

Llave a título póstumo



Directora de orquesta, musicóloga, pianista y compositora nacida en Barakaldo de ascendencia navarra. Socia fundadora y presidenta de honor de la [Asociación Mujeres en la Música](#) hasta su fallecimiento en Madrid en 2017, justo un año después del último homenaje recibido en la Sala Manuel de Falla de SGAE.

Estudió composición con el compositor tudelano Fernando Remacha (de Tudela era también su madre). Obtuvo becas en numerosas ocasiones para estudiar en centros internacionales como el Real Conservatorio de Copenhague con Leif Thybo y K. J. Isaksen, los Cursos Internacionales de Darmstadt (Alemania), o en Francia con el clavecinista canadiense Kenneth Gilbert. Dio conciertos por toda España, así como por el resto de Europa, América del Norte, Países del Este y cercano Oriente. Sus obras están en el repertorio de intérpretes como el guitarrista José Luis Rodrigo, el chelista Dimitar Furnadjiev, las cantantes Esperanza Abad y Marta Knörr, Antonio Arias, Elisabeth Klein, Trío Tres Vientos de Alemania, Quinteto de Pamplona y ha sido interpretada en los principales festivales internacionales. Su ópera *Pelleas et Mélisande*, compuesta en 1974 con textos de Pablo Neruda, es considerada una de sus autorías más importantes. La mayoría de sus obras han sido grabadas y forman parte del repertorio de RNE (Radio Clásica).

Intelectual, articulista, conferenciante, investigadora. Como curiosidad, la primera obra para orquesta de cámara que compuso fue un encargo de SGAE (Sociedad General de Autores y Editores).

JOSÉ LUIS LIZARRAGA GASTÓN (Añorbe, 1939)

Su obra incluye principalmente jotas navarras con cerca de 100, pero abarca otros estilos de folklore navarro como zortzikos, jotas de baile, pasacalles, dianas o auroras. Su inspiración son las cosas cotidianas, las tradiciones y costumbres de Navarra en general y de sus pueblos en particular, reflejando sus orígenes y lo que él ha vivido. Marcado por la enfermedad que le dejó ciego a los 14 años y por su profunda creencia en Dios, se inspira en sus recuerdos de la niñez, su gusto por la naturaleza, las faenas del campo, el amor a la familia y las tradiciones religiosas. Así, ha compuesto himnos, auroras o jotas para muchos de los patronos de los pueblos navarros, también música religiosa y folklórica para banda; es **fundador y presidente honorífico de la Banda de Música de Añorbe**. Varias de sus obras más conocidas hablan de San Fermín y sus fiestas.



En 2022 optó al Premio Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra a propuesta de la Agrupación Jotera de Buñuel.

ALICIA MARÍA TELLECHEA ERLANZ (Santesteban, 1951)



De familia eminentemente musical, su afición por la música y la escritura fueron patentes desde muy corta edad, siempre inmersa en actividades relacionadas con la música y la poesía. Son en sí como su esencia, la que recarga sus pilas para seguir todavía, a los 74 años, en la brecha vital y creativa. La escritura lo complementa. Es, en tanto que socia SGAE, letrista.

Describe sus creaciones son como "grandes tesoros", siempre basadas en la intuición musical, ya que muy a su pesar y por circunstancias de la época, no pudo acceder a una formación superior, como hubiera sido su deseo. En gran medida se considera autodidacta.



MERCEDES LACÁMARA TEJERO (Zaragoza, 1955)

Nacida en el seno de una familia con marcadas sensibilidades artísticas, donde su padre era un entusiasta de la música que tocaba instrumentos de cuerda pulsada, desde muy joven compaginó sus estudios de danza con Elisa Navarro y música en el Conservatorio Superior de Zaragoza, con maestros de la talla de Angel Jaria, Víctor Bueno y de la reconocida concertista internacional de piano Pilar Bayona, donde cursó con un brillante expediente tres titulaciones Superiores en Piano, Armonía y Composición. Algo muy poco común en la época, donde ya era difícil realizar estudios superiores, obtener tres titulaciones y más aún siendo mujer.

Desde muy joven, comenzó su faceta artística formando pareja artística de baile con su hermano, Jose Antonio Lacámara, bajo el nombre artístico **Hermanos Lacámara**, actuando en multitud de festivales durante varios años. Posteriormente pasó a compatibilizarlo con su faceta de cantante, perteneciendo a diversas formaciones musicales conocidas en Aragón, Navarra y La Rioja, tales como la **Orquesta Altamira** u **Orquesta Jamaica**. En su vertiente compositora se centró en diversos estilos, desde lo más clásico como varias Sonatas y Fugas para piano, hasta pasodobles como *Aragón canta a Navarra*, *Sádaba*, *Mi Pasodoble*, corridos mexicanos como *Ay Lupita*, y baladas románticas como *Hoy te puedo decir*, incluida en el debut discográfico *Romántico* del cantante Zaragozano Ramón Martínez en 1992, y marido de Mercedes.

Desde los años 80 la enseñanza fue una parte muy importante de su carrera musical, siendo profesora de Piano y Armonía en diversos Conservatorios, y posteriormente profesora de música en enseñanza secundaria, donde continuó formando a futuros músicos.

GUILLERMO GARMENDIA TALLEDO (Bilbao, 1950)

Cantante, teclista y compositor, a lo largo de su dilatada carrera ha pertenecido a diferentes grupos musicales como **Brotes**, **Tabasco** y **Mitos**, siempre incorporando a su repertorio temas propios. En solitario ha publicado cuatro trabajos discográficos de composición propia: *Hijo de la Ciudad*, *Huellas de luz*, *Respirar* y el más reciente, *La música y la palabra*, un álbum que recoge diez poemas del poeta Blas de Otero musicalizados por él.



Además, ha compuesto sintonías y músicas para radio y televisión, colaborando con medios como Radio Euskadi, Radio Bilbao, Cadena SER, TVE, Tele Bilbao y ETB, entre otros. Actualmente da vida a un nuevo proyecto musical que verá la luz próximamente: *A cara descubierta*, una producción con 13 temas propios.

Más información: www.guillermogarmendia.es/

IRUÑEKO GILTZA-EMARIA – 2025eko EKAINAK16

MARÍA LUISA OZAITA MARQUÉS
(1939-2017)

Hil osteko giltza



Barakaldon jaio arren arbasoak nafarrak zituen orkestra zuzendaria, musikologoa, pianista eta konpositorea. Asociación Mujeres en la Música elkarteko bazkide sortzailea eta ohorezko presidentea 2017an Madrilén hil zen arte, SGAEko Manuel de Falla aretoan jasotako azken omenalditik urtebetera, hain zuzen ere.

Konposizioa Tuterako Fernando Remacha musikagilearekin ikasi zuen (bere ama ere Tuterakoa zen). Askotan lortu zituen nazioarteko zentroetan ikasteko bekak, hala nola Kopenhageko Errege Kontserbatorioan Leif Thyborekin eta K. J. Isaksenekin, Darmstadtteko Nazioarteko Ikastaroetan (Alemania), edo Frantzian Kenneth Gilbert klabezinista kanadarrarekin. Espainia osoan eman zituen kontzertuak, baita Europako gainerako herrialdeetan, Ipar Amerikan, Ekialdeko herrialdeetan eta Ekialde Hurbilean ere. Bere lanak José Luis Rodrigo gitarra-jotzailearen, Dimitar Furnadjiev txelo-jotzailearen, Esperanza Abad eta Marta Knörr abeslarien, Antonio Ariasen, Dimitar Furnadjieven, Elisabeth Kleinen, Alemaniako Trío Tres Vientosen edo Quinteto de Pamplonaren erreperatorioan daude, eta nazioarteko jaialdi nagusietan interpretatu dituzte. 1974an *Pelleas et Mélisande* opera idatzi zuen, Pablo Nerudaren testuekin, eta bere lan garrantzitsuenetakotzat jotzen da. Bere obra gehienak grabatuak izan dira eta RNEren (Radio Clásica) erreperitorioaren parte dira.

Intelektuala, artikulugilea, hizlaria, ikertzailea. Bitxikeria gisa, ganbera orkestrarako konposatu zuen lehen obra SGAEren enkargua izan zen (Autoreen eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia).

JOSÉ LUIS LIZARRAGA GASTÓN (Añorbe, 1939)

Bere lanak batez ere Nafarroako jotak biltzen ditu, 100 obra ingururekin, baina Nafarroako folkloreko beste estilo batzuk ere barne hartzen ditu, hala nola zortzikoak, dantza-jotak, kalejirak, dianak edo aurorak. Bere inspirazioa eguneroko gauzak dira, Nafarroako tradizioak eta ohiturak oro har, eta bereziki bertako herrietakoak, bere jatorria eta bizi izan duena islatuz. 14 urterekin gaixotasun batek itsu utzi zuen eta Jainkoarengan zuen sinesmen sakonak markatuta, haurtzaroko oroitzapenetan, naturarekiko zaletasunean, landa inguruetako lanetan, familiarekiko maitasunean eta tradizio erlijiosoetan inspiratzen da. Hala, Nafarroako herrietako patroiz askorentzat ereserkiak, aurorak edo jotak konposatu ditu, baita bandarako musika erlijiosoa eta folklorikoa ere; **Añorbeko Musika Bandaren sortzailea eta ohorezko presidentea da.** Bere obra ezagunenetako batzuk San Ferminez eta bere jaiez hitz egiten dute.



2022an, Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Sarirako hautagai izan zen, Buñuelgo Agrupación Jotera elkarteak proposatuta.

ALICIA MARÍA TELLECHEA ERLANZ (Santesteban, 1951)



Oso familia musikazalekoa, txiki-txikitatik izan zuen musikarekiko eta idazkerarekiko zaletasuna, betiere musikarekin eta poesiarekin erlasionatutako jardueretan murgilduta. Horiek dira, berez, bere funtsa, bere pilak kargatzen dituenak, oraindik ere, 74 urterekin, bizitzarako eta sormenerako prest dutena. Idazketarekin batera. SGAEko kide den heinean, letra egilea ere bada.

Bere sorkuntzak "altxor handi" gisa deskribatzen ditu, beti intuizio musikalean oinarrituak, izan ere, bere gogoz kontra eta garaiko zirkunstantziengatik, ezin izan zuen goi mailako prestakuntzara iritsi, bere nahia zen bezala. Neurri handi batean autodidaktatzat hartzen du bere burua.

MERCEDES LACÁMARA TEJERO (Zaragoza, 1955)



Sentsibiltate artistiko nabarmeneko familia batean jaio zen. Bere aita hari pultsatuko musika-tresnak jotzen zituen musikazale amorratua zen. Gaztetatik, Elisa Navarrokekin egindako dantza-ikasketak eta Zaragozako Goi Mailako Kontserbatorioan egindako musika-ikasketak uztartu zituen. Angel Jariaren, Victor Buenoren eta Pilar Bayona nazioarteko piano kontzertista ospetsuaren mailako maisuekin ere ikasi zuen. Bertan espediente bikaina izan zuen, eta Pianoko, Harmoniako eta Konposizioko goi-mailako hiru titulazio egin zituen. Garai hartan ez zen oso ohikoa, izan ere zaila zen goi-mailako ikasketak egitea, hiru titulazio lortzea eta are gutxiago emakume izanik

Gazte-gaztetatik ekin zion alderdi artistikoari, Jose Antonio Lacámara anaiarekin dantzako bikote artistikoa osatuz, **Hermanos Lacámara** izen artistikoarekin. Hainbat jaialditan aritu ziren hainbat urtez. Ondoren, abeslari gisa ere aritu zen, Aragoi, Nafarroa eta Errioxako hainbat musika-talde ezagunetan, hala nola **Orquesta Altamiran eta Orquesta Jamaican**. Konpositore gisa hainbat estilotan zentratu zen, pianorako Sonatak eta Fugak bezalako klasikoenetik hasi eta *Aragón canta a Navarra*, *Sádaba*, *Mi Pasodoble* bezalako pasodobleetaraino, *Ay Lupita* bezalako corrido mexikarrak, eta *Hoy te puedo decir* bezalako balada erromantikoak ahaztu gabe. Azken hori 1992an Zaragozako Ramón Martínez kantariaren, Mercedesen senarraren, *Romántico* lehen diskoan zegoen.

80ko hamarkadaz geroztik, irakaskuntza oso garrantzitsua izan zen bere musika-ibilbidean: Piano eta Harmoniako irakaslea izan zen hainbat kontserbatoriotan, eta, ondoren, musika irakaslea bigarren hezkuntzan. Lan horretan etorkizuneko musikariak prestatzen jarraitu zuen.

GUILLERMO GARMENDIA TALLEDO (Bilbao, 1950)

Abeslaria, teklatu jotzailea eta konpositorea, bere ibilbide luzean zehar hainbat musika taldetako kide izan da, hala nola **Brotes**, **Tabasco** eta **Mitos**, beti ere horien errepertorioan lan propioak sartuz. Bakarka lau lan diskografiko argitaratu ditu: *Hijo de la Ciudad*, *Huellas de luz*, *Respirar* eta oraintsuago, *La música y la palabra*, berak musikatutako Blas de Otero poetaren hamar poema biltzen dituen albuma.



Gainera, irrati eta telebistarako sintoniak eta musikak konposatu ditu, eta, besteak beste, Radio Euskadi, Radio Bilbao, Cadena SER, TVE, Tele Bilbao eta ETB kateekin kolaboratu du. Gaur egun, laster kaleratuko den proiektu musikal berri bati bizitza ematen ari da: *A cara descubierta*, 13 lan propio biltzen dituen ekoizpena.

Informazio gehiago: www.guillermogarmendia.es/